

-----STORBAIS-----

Badira aste batzuk STORBAISEn CD berria gure artean daukagula, "La única ley" izenburupean. 10 abestiz osaturiko metal txorrostada freskoa. Fori, Porni, Txanpras, Patxon, Barrutia eta Txinok (biri-
ketako ahalmena %95ean jada, Zestoako gau sutsu baten ondorioz, argazkia CDan lekuko) Arrasateko Shot estudioetan grabatutako lan honek aurrekoa

gainditzen du nabarmen soinuan, abestien eraikuntzan... borobiltasunean azken finean. Arazo informatikoak medio nahi baino gehiago berandutu zaie kaleratzea; baina ... 1.000 pelagatik!! eskuragarri daukazu Ermuko eta inguruko taberna zein dendatan. Hona hemen Txino eta Txanprasekin izandako solasalditxo.



"Ermuak Euskal Herriko kultur musikal-metalero zabalenetakoa du"

-Disko hau zer da, "más de lo mismo" edo berrikuntzarik ba al dakar?

Nire ustez ez dugu ezer berririk aportatzen disko honetan, Storbais da. Metal gehiago, heavy gehiago badago, tendentzia berriak ez, hurrengoan agian punk-hardkoreruntz jo dezakegu, batek daki.

-Nola egiten dituzue abestiak?

Orokorrean Fory eta Barrutia elkartzen dira eta erritmotxo bat edo beste ateratzen dute eta gero gorpuztu. Letrak, aldiz, nik eta Foryk, eta bakoi-tzak bere erara sartzen ditu.

Letretan pixkat denetarik hitzegiten dugu, inguratzen gaituzten gauzei buruz, kaña ematen merezi duenari... azken finean kronika sozialak eta pertsonalak. Maitasunari buruz... ez, ez dut uste maitasunezko abestirik daukagunik.

-Zuen diskoen estetika ikusita, norbaitek pentsa lezake porrero

batzuk zaretela, eta gero ez da horrela. Disakoaren azala ere, odoltsua, iluna, zer esan nahi du guzti honek?

Gauza bat da zuk istorio bat errepresentatzea eta beste gauza bat benetan nolakoa zaren. Storbaisen logotipoa horrelakoa da hasieratik eta mantendu nahi izan dugu horrela.

Bestalde diskaren azalak "la guadaña" abestia du oinarri, eta hirugarren mundu gerraren apokalipsiaz hitzegiten dugu, gerta daitekeen zerbaitekin. Metala ez da zertan odola, errai eta holakoekin lotu behar.

-Afoniko bukatzen dituzu kontzertuak oraindik, hala gehiago kontrolatzen duzu ahotsa?

Teknikariak gomendatu zidan

"Mobida guztiz aldatu da. Lehen herri batetan jotzea ia-ia eskualdean jotzea zen, orain jendea apalankatuta dago eta justu-justu bere herriko kontzertuetara doa"

pastila batzu hartzea, Bucometasana, eztarria lubrifikatzeko. Adurretan hasten zait ahoa etengabe, eta txisturen bat heltzen da lehenengo fila koen aurpegietara, baina, tira.

Toy Dolls taldeko abeslariak hartzen dituenak dira. Hark pote osoa hartzen du.

-Abesti bat euskaraz ... Kortatu bezala bukatuko ote?

Mutil euskaldun baten sentipenak adierazten ditu, familiako bat zipaio sartu eta ondorengoak, horregatik euskaraz. Bestalde, herri hontako hizkuntza denez, gure aportazio txikia ere egin nahi izan dugu, baina gure hizkuntz nagusia beti gaztelera izan da..

-TIPO guay ay?

97ko maketa lehiaketa irabazi ondoren, TIPOk antolatuta, diska honen estudioa eta lehen 2.000 kopiak beraiek ordaindu dizkigute. Hilabete batetan 1.700tara heltzeak Euskal



HerrikoTIPO dendetan salmentetan 3. tokian egotera eraman gaitu.

-Euskal rocketik eukal metalera pasatu ote al gara?

EHn lehen baino aniztasun handiagoa dago, egia da metalaren barnean aukera gehiago dagoela, orokorrean errebindikazioa bilakatu da baina kañeroa jarraitzen du izaten, hori baita Euskal Herriko taldeek duten lokarrik handiena. Aipatzekotan Ezin Izan, Atxantatu, Anestesia, Sucio Sistema... Eibarren Kafha...

-Zer da Puer cords?

Puer cords banaketa zera bat da hiru elementuz osatuta: Puerco, ni neu (Txino); Puerconeta, konpakak eta ni eramaten gaituena eta Puercomputer, diseinuak kurratzen dituen. Ez da Storbaisen kontu bat, SIN badago ere eta edozeini zabalik dago. Momentuz banaketa eta diseinu lanak egiten ditu, agian diskaetxe bezala bukatuko du, ikusiko dugu.

-Zelan ikusten dozue, egun batetan Elgoibarren jo, hurrengoan Elgetan, hurrengoan Elorri...

Mobida guztiz aldatu da. Lehen herri batetan jotzea ia-ia eskualdean jotzea zen, orain jendea apalankatuta dago eta justu-justu bere herriko kontzertuetara doa, beraz ez da ain traumatikoa horrela ibiltzen jotzea.

-Kontraste, Peña Kontraste, Storbais... zer mugitzen da hor?

Bai, gu izatez peña metaleroa gara, eta astean zehar Kontrasten elkartzen gara "foro metalero" bat bezala. Kontrastek herri honetan zegoen eta dagoen kultura bati erantzuten dio, metalera, hardkoreta, death.... asteburuetan herritik mugitzea gustatzen zaigu ordea, ez beste "peña" askori bezala

"Metala ez da zertan odola, errai eta holakoekin lotu behar"

ez daukagu aurreritzez ondo pasatzea denean helburua. Gainera aberatsagoak gara, bi peñatan banatuta gaude, alde batetik punk-hardkoretarrak eta bestetik death-blackdeatharrak, banaketa musikala besterik ez da, elkarrekin erlazio majoa daukagu, noizean behin komunetik pasatu behar bagara ere pintada bat edo beste egitera. Storbais momentuko talderik zaharrena da Ermuan, hori anekdota besterik ez da, metala betidanik egin izan delako Ermuan eta jarraituko da egiten.

PAM



LABURREAN

-Kotxean entzuteko zerbaite
Corazon del sapo

-Abesti bat larunbatean goizeko ...tan.

Smack my bitch up, Prodigy.
Benead de remains, Sepultura.

-Komunean irakurtzeko zerbaite
Arazoak ematen ari zaidan modem baten azalpen liburua

-Hiru droga, hiru momentu.
Amsterdameko e bat momentuko makrodiskorako.
Urbasan akanpatzeko tripia.
San Ferminetan pitxua sakukada.

-Entsaioetan inspiratzeko zerbaite.
200 talegoko kontzertu bat atera izanak.

-Photo Playeko joko bat.
Triviala, errekorra daukat
242.500 puntu.

-Ze txanpu darabilzue?
Gela, ofertakoa.

-Puto bakalao.
Puto bakalao eta puto black fa-
zista.

-Larunbat gauean...
Konzertu on batetara.

-Korrikarekin zer?
Trabakuaraino ez dugu uste, baina parte hartuko dugu.

-Irratia, TB, internet.
Internet eta irratia.

-Kontraste Infreñu partidurako emaitzarik?
13 -12 kontrasteren alde, emozioa litroka.

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11

komunitateak
aseguruak
San Pelayo
aholkularitza
fiskal eta juridikoa
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) - 46 P.K. - Ermua